



FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat bazkide eta hornitzaile izango ditugu elkarlanean. Lehenik eta behin, botila fabrikatzeko enpresak eta material hornitzaileak izango ditugu. Horiek osasungarriak diren materialak emango dizkigute, botila segurua eta praktikoa izan dadin. Bestetik, tapoi adimenduna sortzeko teknologia hornitzaileak izango ditugu, koloreak aldatzeko sistema garatu eta fidagarria izan dadin.

Era berean, eskola eta unibertsitateekin elkarlanak egitea garrantzitsua da. Haiekin hitzarmenak egin daitezke ikasleen artean produktuaren erabilera sustatzeko eta iritzia jasotzeko. Osasun edo kirol elkarteekin harremanetan egon gaitzke, botila eta ura edateko ohiturak sustatzeko kanpainetan parte hartzeko. Bestalde, saltzaile eta dendekin ere harremanetan egon beharko dugu, produktu hau merkatura eramateko eta erraz eskuragarri jartzeko.

Leioako liburutegiarekin elkarlanak egingo genituzke, han ikasle asko daudelako egunero ikasten eta bertan ere hidratatu

Bazkide eta hornitzaile hauek garrantzitsuak dira guretzat, proiektuak modu seguruan eta efizientean funtzionatzeko. Material onak eta fidagarriak lortzea beharrezkoa da, botila kalitatezkoa izan. Eskola eta unibertsitateekin elkarlanak gure produktuaren erabilera sustatzen laguntzen du, eta bezero berriak aurkitzen laguntzen egiteak digu. Osasun eta kirol elkarteekin, harremanak osasungarriak diren ohiturak sustatzen laguntzen digute eta proiektuaren balioa handitzen dute. Azkenik, saltzaile eta dendekin dugun harremanak produktuaren merkaturatzea errazten du, ikasle eta familiek botila erosteko aukera izango dute.

Laburbilduz, gure proiektuak funtzionatzeko beharrezkoak diren hornitzaile teknologikoak, material hornitzaileak, eskola eta unibertsitateak, osasun eta kirol elkarteak, eta saltzaileak. Haien laguntza eta elkarlana gabe, gure botila ez litzateke bezeroentzat erabilgarria eta eskuragarria izango, eta helburua, ikasleen hidratazio-ohiturak hobetzea, lortzea zailagoa izango litzateke.

Gure proiekturako teknologia-hornitzaile nagusietako bat Biltron izango litzateke. Biltron Erandion (Bizkaia) dagoen elektronika-osagaien denda erreal bat da, eta bertan Arduino plaka, LED argiak, sentsoareak eta tapoi adimenduna egiteko behar diren beste osagai teknologikoak eskuratu daitezke. Hornitzaile hau garrantzitsua da guretzat, proiektuaren zati teknikoa modu errazean eta fidagarrian garatzeko aukera ematen digulako.